


J. ETCHEPARE

1923^{ko}


EUSKALZALEEN BILZARRIAN

BAIGORRIN



BAIONAN

A. FOLTZER Baitan Imprimatia.
LASSERREN Etchian Salgei, 20, Gambetta Karrikan.



na 275870


ZRV
3489

J. ETCHEPARE

1923^{ko}

EUSKALZALEEN BILZARRIAN

BAIGORRIN



BAIONAN

A. FOLTZER Baitan Imprimatia.

LASSERREN Etchian Salgei, 20, Gambetta Karrikan.

BAIGORRIN

1923^{ko} EUSKALZALEEN BILZARRIAN

BURUZAGI LEHENAREN MINTZALDIA

Ongi-etorri

Jaun meraren ondotik, nik ere : Ongi-etorri, euskal-
zale lagun maitiak !

Baigorri lehen aldikotz gira elgarretaratiak. Aspaldi-
tik zor ginakon herri huni gure agurra. Beha zagon noiz
ohartuko ginitzaizkon, eskualherriaren bihotzak sekula
bezain gazte eta bizkor joiten dielakotz hemen.

Mendirat jinak ziezte, laborari eta artzainen arterat.
Itsasoak, guti bada guti, ari du jaten gure lurraren hegi
bat ; zorigaitzez eskuara ere ba, eta eskualdun jendekia.
Mendia dugu ihes-leku ; mendiak gitu beiratu behar,
lehengo mendetan bezala ; menditik dukegu etsaiaren
garai bidia, jaistekotan haatik ardura zelairat, arrotzaren
kotsutik hunen garbitzeko, — itsasoa bera hein batian
gure meneko daukagularik, ebatsiaren ordain ereman
dezan urrun gure odol bizitik zerbait. Mendiak gitzala
oraino haurridez haurride, eskuz esku, gure mintzai
bethierekoaren arartekoz, batasunian iduk.

Ziin eta ene šederik minena da eskuara bizi dadin, zer
diot ! Gernikako arbolaren idurirat, sorthu lurrari itzul
dezan bere hazia, eta lurrak dirauno hazi hunek har dezon
uztatzeko indarra. Baigorri, lagunak, hazi hori arthare-
kin beiratia dago ; gal dadin hemen, ez ukan beldurrik :
zuhaitz azkarrenak dira mendietakoak.

Egundainotik herri huntako ahaldunek ohoratu dute eskuara, ez bakarrik herrian berian, beren menckoen argitzat, bainan oraino herritik urrun gizon gaztiak gudurat zeramatzatelarik edo urrungo leihorretarat ontasun biha. Apez khartsu batzuek fededun bezala eskualdun nahi zituzten, nahi dituzte bethi, Baigorriar umiak. Nihun ez da kantatu hemen bezain gozoki arbasoen jaiduran. Badea neurtitzale hanbat, *Dibarrart* zenak bezain eskualdunki inharrosi gitienik ? Emaztek, edozoin lerrotako izan ziten, dun ala ontasun gabe, jakitatez apaindiak ala beren baitarikako argiez baizik ez, beren buria ez dute utzi arrotz mintzaiez zoratzera. Eta halakoa izan da Baigorriren jarraikia aitzinekoen urratsari, non eskolemaile hautak ukan baititu bethi, hauten hautenak bere lurretik beretik sorthiak.

Mintzaiaren beiratziari darraiko, Baigorriin, bertze ohidurena. Euskalzaleak, behatuko dakozie pilotako plazari: Eskualherrian ez baita ederragorik. Belarrak tokika hartzen hasia badu, jakin zazie orai beretik trinketeko jokoari eman dutela behin pilotariak, gero plazakorat itzultzeko. Karrikan gaindi zoaztelarik, ohartuko ziezte eskualdun aran eginikako etche batzuer ; hemengo berekoak zituzten ofizialiak, hotarik bat edo bertzeen antziaren omena, guziz muble eta barnien apaintzetan beren aiten ganiko ara erreberrituz, zien beharrietarat ja heldia baititake. Dela jauntzian, dela ibileran, dela bizipidez apur bat lehen danik kambiatu bada Baigorri, ikusiko duzie aitzinekoen sailetik ez dela halere baztertu. Nola zelaiko laborantza, nola mendietako hazkuntza, halaber karrikako bizitzia gelditu da berdintsu.

Ba, ongi-etorri, euskalzale lagun maitiak. Egiaz Eskualherri minian aurkitzen ziezte, ziin herrian, ziin etchian.

Aurthengo erabakiak

Euskalzale lagun maitiak, igurikitzen zinukete ni ganik

mintzaldi apaindu bat, zuhurtzia guzia hizkuntzarik ederrenian. Gai ere zinitazkete aditziaz. Nik, ordian, bil dezaketan zuhurtziarik hoberena zietarik behar ; duktan apurra ziinaren laguntzeko baizik ez. Aho ederraren jabiak, bertzalde, ardura. egintzatik ihes. . . . Ditzagun beraz elgarretara bil gure gogoak ; argituz batek bertzia, haurride batzuen arteko solas gozo bakunian, aipatuko ditugunak izan bite gutarik bat bederarentzat lanerako urrats batzuen pare, bertzerik deus.

Bada, jaz Maulen izendatu zinituzten buruzagiak bildu izan gira Baionan lauzpabortz aldiz, haziletik aurthengo agorril artian. Badakizie Capito-Harriko orhoitmenaz zer sēdiak erakutsi zitien Doniane-Lohizuneko bilzarrak. Datchikola jakinarazi ditugu Ameriketako gure haurri-der, eske bat egin zezaten lehen bai lehen. Bildu diriaren berririk ez dakigu oraino, baizik bildu izan dela ederki. Euskalzaleen bilzarreko emaitzaren gainera Lapurdiko kontseiliek zabaltzen badute bertzalde eskia, laster badukegu amestia den orhoitzapenezko harri ederraren saria.

Omen handiko idazle edo izkiriazale zaharren ohoretan, jarraiki gira halaber zonbait urthe huntan abiatu sailari. Dechepare, Eiheralarreko erretor zenaren, eta Leizarraga Beskoizekoaren izenak irakurtuko ahal dira hemendik harat, egon izan ziren etchetako sar-athiaren gain-aldian. Dassance eta Elissalde, gure lagun khartsu bezain argitiek, ezarri dituzte lehen, marbrezko plakaren gai dauzkagunen artian. Merezi zuten segur idazle biek, batek Testament berriaz egin liburiaren gatik, bertziak bere neurtitzez, bai eta ere bethiereko bizia hitzeman zakolakotz eskuarari, harek hasirik imprimarazten.

Urtharrilian hautatu ginien elgarrekin, Semenario handiko ištudiantetarik nahi lana ; gerošago, halaber, herrietako haurren ganikakoa. Batzuen eta bertzeenak eskuratu orduko orrazatu ginitien, sarrišago adituko duzien araberan primatzeko. Ištudiantek beren hauturala

eginikako kondera hoberenak jujatu ditugu eta saristatu, egun berian.

Ez dugu beldurrez, herabez edo lotsaz bazterrera utzi, bihotzian zier bezala gehienik min egiten daukun izurriaz mintzatzia. *Tuberculose* dute orai izendatzen, kasik lurreko bazter guzietan. Eskualherrian bazen, itchuren arabera aspalditik izan ere da, gaitz hortarik guti edo aski; hedatzera eta azkartzera zoakela zitzaikun bakarrik iduritu hanitzi, hiri handietako ospitaliak gure soko maiterat haur erien igortzera abiatu zirelarik. Beldurra barnago sarthu zitzaikun, familietan ikusi ginitielarik kokatzen.

Seheki eta hurbil danik ikusiz gauzak, ez ginien bizkitartian hainbertze izitzekorik. Herri gutitan dira delako haurrak; eri baino ahulago direlakotz, eta ahul baizik ez gehienak, ontzen dituzte hemengo jan-edan eta artheak. Larritziarekin itzultzen dira gutiz bertziak hirirat. Euskalzaleen bilzarrari izanikan bakarrik eskualdun ohikuntza zaharren ahal bezenbatian beiratzia bai eta eskuararen, atzarri dadiela egon halere, behar ordian eskualherriko ahaldunen arartekoz bere oihiaren adiarazteko buruzagi nausier: ohikuntza guziak eta eskuara bera baino lehen ez dea alabainan osagarria.

Aipatu gaitz bera, ahapetik izendatzen ohi den bertze batekin nahastekatia batzutan, ari zaiku zorigaitzez bertze buru ~~buru~~ batetik urthetik urthera barnago sartzen gure herri maitian. Suisa, Aljeria, Alpetako eskualdia, Suisa guziz zitien berriki artio gorde eta artha leku. Gerlaz geroztik, Suisako kambioaren goititziak hunat derakar. Badakit medikiak, medikiak bezanbat eriak berak, ez direla baitezpada eskualerriko airiaren alde, — goiti-beheiti handiak dauzkalakotz bere heze eta jogi neurrian — bainan hain soragarri zakote orori Eskual-herria! Gure bazterrari beha, piran-piran, ephe laburrez edo tanpez hiltzera gogotik jiten zaizkigu bular eriak.

Erdi kalte baizik ez litake, ez balituzte kotsatzen gure

ostatiak, gure karririkak, gure etchiak berak. Ez gituzte oro har-joko, ez, — Suisan berian sendo dago oraino bana-bertze jendia—, bainan ba ahulduko, andeatuko han-hemenka. Nola bihur izurriari, nolako zedarrien bannian atchik hau bahiturik ?

Geure buriaren jabe egonez, arrotzaren alderat berkoikeriarik gabe bizkitartian. Jabego hau emanen dauku gure ohikuntza onen alderateko atchikimendiak, eta atchikimendu hau ? Jakitate izpi batek, — zuhurtziak, nundik nahi jin dadin, bainan guziz jende ſehiarentzat erlijioniak demakonetik, — herriaren beraren alderako amodioak, baldin ez-azolaz edo nagikeriaz ez badugu hoztera uzten. Euskalzale lagunak, ziuntzat ere uste dut baden hor eginbide.

Ez aski haatik ara hortako oldarra, izurriaren baratzeke. Atherbe eta eritegi bereziak behar litazke. Hiri eta hirisketako ospitalien sahetsian holako batzuen eraikitzeke ſedia baluke gobernamentuak, jende beharrarentzat. Aberatsentzat, *sanatoria* berri zonbait ikusiko ditugu laster, medikien eta dirudun batzuen lagungoari esker. Agian bier-arteko jendiak ere ukanen ditu, ephe laburrik barne, bere ahalaren arabera. Ontsa direnen eginbidia, holakoen eraikitzia lehen bai iehen, ezen gobernamentuak bera ez ditake orotara hel. Artetik erran dezadan, jaun Prefetak galdegin ditu berriki argiak eskualde hotako medikier, eta uste dut guziek adiarazi duten beren boza. Ara hortara, Euskalzaleen-bilzarra berez bere holako urratsetan ez sarthurikan ere, — bertzerik du egiteko alabainan, — barne dituenetarik nork edo nork bere izenian erreſki erakuts dezake ororen nahikaria.

Halere, nahi den bezenbat egin izan dadin aipatu atherbe edo eritegiatarik, handik sar-atheraka kalte egin dezake oraino arrotzak, gure herrian gaindi dabilalarik. Gauden geure buruaren jabe ; gure osagarria beira dezagun ahal bezenbatian gure bethiereko bizitze garbi eta sendoaz ;

gauden eskualdun. Guri, euskalzalecr, eskualdunen ia-guntzia eskualdun egoiten.

Gure solaserat itzul giten, bertzerik ere erabaki dugu Baionako gure bilkurañoetan. Semenari handiko apez-geier eskuara erakatsia izan dadin ardiestia zailsko baitzen, gauzak ontsa ikusiz behar ukan dugu utzi gerokotzat. Gure ustia bertzalde, eskuarazko liburu on andanaño baten iaguntza haizu bazeie ištudianter orai artio bezala, ez dagola segur galdurik gure mintzai zaharra Semenari handian.

Ohartu gira ere gure buregoak etziela gizonik aski. Giren bakarrak ezin neholere han aurki oro batian ; balzu ez agertzen ere nihoiz. Berritzia baitezpadago dugu, nola emendatzia. Galdegiten dauziet gutarteko onhar ditzazien, gai diren eta gure deiari gogotik erantzun duten bezala, Souberbielle medikia, Amestoy lotinant kolonel ohia, eta Fagalde, Larresohotar etcheko-jauna.

Azkenik, solasian hasi gira d'Abbadie zenak finkatu besten buruzagiekin, eta šedia ginuke oraino Fédération de la Pelote Basque delakoarekin bat egiteko : orok batian, orok elgar lagunduz, gure ohikuntza guzier egun berian ohore ekarriz hala nola gure eskuara maitiari, finka dezagun, guziak oro bateratuz, eskual-egun bat. Nork daki bide hortaz ez ginezaken jende šehiaren beraren ganik eskura, behar handitan ginaizken ezagutzazko eta eskerrezko iaguntza ? Badut uste šede hortan ere gurekin zieztela.

Gerokotzat utziak

Atsegin ginuken ikustate zerbaiten erakustiaz Hazparneko misionest ohien eskolari, harat biltzen baitira herrietako ikastetchetarik landa mendien bi alderdietarikako mutiko larritu andana bat, eta haur hoier, bizpahiru urtheren buruko itzultzen direlakotz gutiz gehienak beren herrirat laborantzan artzeko edo bederen laborari-etche

baten gidari izaiteko, eskuararen ahal bezain errotik erakasteko burutzapena hartia baitzuten buruzagiek. Hanbatenaz atsegabe ukan dugu gure ahal eskasaz, non eskualherri bazter guzietarikako haurrak han aurkitzen baitira, eskualdun guzien artian nahi ginuken aneiatasunaren hasburu, bethiereko iagungo baitezpadakoaren gaztez gazteko lokarri.

Bozkariatu gintazken orobat bihotz puska baten emaitiaz, eskuarari begitarte on atchiki duten herrietako eskolemailer, Elizari darraizkioten ala Gobernamendiari. Gure iduriko, frantsesa erakats dezaten ez dute bakarrik eginbide, baitezpadako zaiku oraino, bainan ez eskuara lehertuz, ez balitz bezala eskuara bazterrerat utziz. Adiaraziko ote dugu aski gora, aski ardura, sor-herriko mintzaian dabilala erreškienik alhan nor-bederaren gogoa ; eskuara dela eskualdunentzat adimenduko pindar, bihotzeko su, nahiaren hazkurri hoberena, nola baita alhapiderik zaluena mihiko ; eskuarak gauzkala geure lurrari, geure *aberriari* gehienik atchikiak, hala noia, dela Frantziaren, dela Españaren alderat, *menherriaren* zerbitzari bulartsiago ?

Nahi duzie šeheki eman dezazietan ene gogoko berri ? Agiantzen nuke (*je souhaiterais*) herrietako ikastetxetan haurrer eskietarat eman liburuñoek, edozoin izan diten, artetan frantsesaren edo españolaren ondotik ager balitzate šehetasun zonbait eskuara garbiz, horrela haurrek ikas dezaten hobeki, han erdara, hemen frantsesa, eta bide beraz beren sor-herriko mintzaiaren mamia barnago sar hazkurritzat beren buru-muñetan.

Etzaizieia iduri bi herrialdeek, nola bi erresumek begikoago luketela beren apaindura, idekiago beren adimendia, zabalago beren bihotza, horrela sor-mintzaia zor zakon neurrian ohoratia balitz eta lagundia ? zoin bere tokietan berdin lagundu eta ohoratiak balire Provence, Britainia, Biarno eta bertzeetakoak ?

Eta ez lizaiziekea zuzen, eskualde hoitan guzietan,

urrats horri jarrai litazken eskolemailiak den gutien bat bederen saristatiak izan ditzen — gurian, gu euskalzaleez ? Urrunsko eta zehar joan beldur izan ez banintz, erraitera nindoan..... gobernamentiekin berez ?

Bainan bortzetarik lau frantses edo español eta garaitikoa eskuaraz argitiak litazken liburu batzuen egitia ez badezoketegu behingotz galdegin gure eskolemailer, ez ote ginitzazke halere orai beretik apur bat bero sorherriko mintzaiaren alderat, zerbait sari emaiten ahal baginakote urthekeal, gure zoin-gehiagoetako prima eta aipamenen irabazle haur arau ? Bide hortaz gure mintzaia ez lakiketen eskolemailiak berak tirria litazke behar bada hartarik zerbaiten ikastera.

Ahal eskasez, ez dugu ere aurthen ezagutzarik erakutsi. ez herrietako jaun eta andere erakustunei, eskuaraz egin zuketzen idaz-lan zerbaitentzat ; ez bikarieri ere, gure gazteriaren argitziari hain hurbilik darraizkon eskualdun garbiak hok bizkitartian.

Gogotik, o zoin gogotik, halaber jarri gintezken lauzka, jakintsun gazte andana bat baita, bakotša bere šokoan išilik liburu bat edo bertze idatzirik daudenak, eta hura ezin imprimaraz oraiko garestian..... lauzka patarrari goiti abia ditzen langile gaizo hek. !

Errepika berari narraikolarik, erranen dut oraino, azkartšago bagine erreški gida ginitzazkela hemendik Argentinako, Chileko, Mexicoko, Californiako euskalzaleak. Ezen, gure iduriko, hemendik, sor-herritik dute behar beren argia eta igia. Atseginekin litazke loth guri.

Ahaztera nindoan eskuarazko teatria, ezen baitezpadako zait dezagun ukan eskuarazko teatre bat. Orhoit hogoigarren mendian bizi girela. Beha nola doan jende šehia trumilka hirirat, teatre arrotzetarat ; beha nola gure herrietan gaindi dabilzan komediant teatre, zinema, giñol, eta zonbat holako jostagailu, zorigaitzez ez batere guri eman direnak, zorigaitzez oro frantses edo espāñolezkoak, zorigaitzez oro gure sosaren norapait eremailiak.

Pilota eta musa ez ditugu aski gehiago, jendiaren atchikitzeke herrian. Gure ohiduretan sar dezagula teatria ere, eskuarazko teatria.

Etzait iduri bizkitartian herri handienetan baizik ager ditakela, eta han ere noiztenka. Ikastetche larrietako mutiko eta neskatšek lukete behar jarri behin joko hortarat. Eta teatreko agerkizunck behar lukete izan gure kampañetako ideen araberakoak, hala nola Ziberoan, nahiz Ziberoan ere galdatzen luketen pastoralek molde berri bat.

Musika puška bat, eskualduna ; kantu zonbait, eskuarazkoak ; miiloratze edo deklamazione zonbait, eskuaraz ; agerkizun šume batzu eskuara mintzaian eta eskual ohiduren usain onaz bethiak ; horra nolako lizaiket an eskualdun teatria.

Decrept gure lagun suharra goratik hasi izan den bezala, — goratik, ene ustez, eskualdunen ernatzeko šediarekin — agian nor edo nor, jadanik Barbier bezala, bainan gotorkišago, hasiko zaiku apaleko mailetik, artekorat gerošago heltzeko, eta emeki emeki Decrept jaunak Colin-ekin batian zankez eta urrats bizisko batian igan maileraino goititzeko. Šoriño batek salhatia daut, bertzalde, arteko mailian ere bermatu izan dela Decrept, ez baita errešena, eta gorderik dauzkala gure ondokoentzat obra bat edo bertze, eskualdun guziak eskerrez betherik egonen zaizkotenak.

Burutzapen hoik guziek ordian laguntza izpi bat eskatzen. Langile guti oraiko egunian, noizetik noizera baso bat arno bederen ez badiezie emaiten ahogozagarri.

Euskalzaleen bilzarra izan ditakea nihoiz hoinbertze išurkiren ithurri ? Behar bada ba, jende šehiak lagunduz. Eta nork daki ? Sor dakikegu orobat, gutienik ustian, lehengo Mœcenas aipatiaren iduriko euskalzale argitu, bihoz dun eta esku zabaleko norbait. Agian ba !

Ištudianten primak

a) Frantsesaren eskuaralat itzultziak.

Semenario handiko ištudiantek bazuten, lehenik, eskuaralat itzultzeko *Télémaque* liburutik berešiak ginaizkoten lerro andana bat.

Léon (Léon), hazpandar apez-geiak du ereman lehen garai-saria (175 libera). Hizkuntza garbi eta gošoa jaun horrena, aditzeko ezin gehiago erreša. Eskuararen itzulika bereziari atchikiago da, ezin ez hitz berri keta ibiltziari. Erakustera eman dauku zuhurki, hitz berrien amestia, asmatzia, sortzia, lantzia on dela, on baino baitezpadakoago orobat, bainan iguzkia gure begientzat argi den bezanbatsu argiak izanen direlakoan adimendu gehientzat, bainan ere oraino jende šhiaren ahoak erreški erabiltzekoak izanen direlakoan. Bertzenaz, jo frantses hitzetararat, hok guti edo aski eskualdunuz, jende šhiak egiten ohi dien bezala. Frantsesek beren ahoan bethi danik orhatu dituztenaz geroz latin hitzak, hok osoki frantsestu artio, zendako guk, eskualdunek, ez ginitzazke halaber orha oraiko frantses hitzak, lehengo mendetan latinarenak egin ginitien bezala, orha gure molde berezian, osoki eskualdundu artio ?

Hitz berriak, artetik erran dezagun, ez ditazke hanbat hizkuntzan sar, ez dezakete errorik egin eskualdunen burian, non ez diren haurrer ikastetchetan erakasten, hortakotz den baino eskualdun erakasle gehiago behar bailitake ; non ez ditugun biziari doazkon urrats gehientzat irakurgeiak egiten eta hedatzen ; non ez dugun azkenekotz, zerbait dakigun guziek ohi dugun baino ardurago eta artha gehišagorekin eskuara erabiltzen, mi-hiz noia lumaz, — hitz zahar eta berri, oro barne.

Bigarren garai-saria (125 l.) eman dakogu Laffitte Pierre, Ithorroztar apez-geiari. Langile gaitza jaun hau, eskuarazko liburu zahar eta berriak irakurtu ditiena ; ez bakarrik irakurtu, bainan šorroški ikertu ere. Gure aitz-

nekoek asmatu eta beren lumaz finkatu hitz berri pollit guzien ondotik dabila, ihiztaria larrez larre erbiaren ondotik bezala. Eta zonbat ez dauku hatzemaiten, batere ezagutzen ez edo ahaztera utzi gintienak, ez-añolaz ez bada, alferkeriaz! Badira segur hitz hoitan andana bat ezin gehiago argiak, bai eta erreñki gure mihiak erabil lezazkenak. Jarraiki bedi Laffitte eskualari khartsia, abiatu sailari. Zahar-berrikatuz apur bat, aberats dezagula eskuara. Landare zaharretikako šertoa, sendo delarik oraino landaria eta azkar, pizten ohi da aldaska berrien emaitako. Esker berezi bat šertazaliari. Bertzeak ez bezalako prima baten gai liteke.

Idiart Arnould, Lasatar apez-gei, hirugarren garaisariaren (75 libera) irabazlia, jarraikitzen da, sobera nekatu gabe, jende šehiaren hizkuntzari. Fénelon zenak frantsesa zetabaten zien neurria ez dako arras atchikitzen eskuarari. Lan aipagarria hargatik, harena ; jorratu ukan balu artha gehišagorekin, nola bereñi ote ginuken hirugarren mailian ezartzeko, eta ez lehenian ?

Bertze ištudianten itzulkuntzak aipatuko baizik ez ditut. Han-hemenka hautak ziren, bainan tokitan ez aski apaindiak. Asti eskasaren berri eman daukute: jakitaiaren edo lehiarenik ez.

Gora eskualdun apez-geiak! Apeztasuneko mindegiaren erroak hazi bedite, orai eta bethi, eskuara maitiaren esniaz.

b) Kondera edo ipuinak.

Uztailaren ondarran jarri ginen, Baionan, apez-geiek idatzi konderen juje. Atsegin handia guretzat, ikusiz zonbat esker berriz erakusten zaukuten eskainiak ginaizkoten primer.

Aldi huntan ere Léon (Léon), hazpandar apez-gei geroztik apeztia, nausi gelditu (150 l.). Gogoak etzaukun bertzerik emaiten: frantsesa eskuaralat gurbilki eta aisian itzultzen dakienak, nolaz ez lakike eskuararen erabiltzen, urka bilurrik gabe dariolarik ?

Léon jaun apezak — uste dut ziin artian den hemen — kondatu dauku Ursuko mendian gaindi lagun batzuekin astiz eginikako joan-jin bat. Kaskorat heldu zenian, Makeako herria bere oinetan, jiten zako bururat Ganiš makear aipatiaren ezagutzak behar zitiela haraz geroz egin. Joan ere berehala, bere lagunak utzirik, bai eta nolazpait Ganiš hatzeman, — frantsesek zonbait urthe hotan irri karkailaz *Ganich de Macaye* deitzen duten gizon hura bera.

Gure bidariaren harritzia ! Etzien Ganišek den gutieneko eiterik, errana zakoten gizon bitši harekin, ez bere jauntzian, ez ibileran, ez bere solasetan ere. Erdeinuz eta trufaz nunbaitik jinikako jaunškila batzuek beren aho mihietan zerabilaten laborari puska on bat, ez batere zozoa haatik, ez herabea ere, horra nolako agertu zitzakon Léoni Ganiš egiazkoa. Jostagailutzat tonto zaukaten eta eskoil haizu den baino gehiago, aipatu arrotz širtšilek, adiaraziz gainera edo bederen geroago barnago beren gogoari emanaz haren iduriko zitazkela eskualdun guziak. Makurrago dena, hari irriz, eskualdun andana batek beren buriaz zuketan irri eginarazten orobat, uste gabetarik apalduz beren eskualduntasuna.

Eskerrak, jauna, Eskualherriaren izenian, ohartarazi baigituzu bertzela ikusiak izaiteko gai girela, ez bakarrik Makean, bainan orotan. Eskualduna agertzeko on da nun nahi : gizonez gizon, ez du nehoren ahalgerik. Neurri batetik goiti, badaki behar ordian irrien sar-arazten. Ez bethi mihi eta makil ukaldika, ez, bainan batzutan, eta askok uste duten baino ardurago ere, bere gizontasuna lañoki erakutsiz.

Jaun apez eta euskalzale lagun berria, zure kondera burutik buru gizon batena da, eskualdun garbi batena, dena bihotz, dena herriaren amodio, dena solas gogoe-tagarri, erdi gordeka bezala dena jakitatezko mamiz, fedezko khar ezti batek geroago barnago deramala irakurlearen baitan. Luzesko egon bazira Ursurat ezin iganez,

ezin hatzemanez Makeako zoko batian Ganiš gaizoa, nago samurkiago ez ote ginituzun nahi jo ondarrerat, baikinien iratzar aldi baten beharra. Hazpandarrek urrats emekia, bainan beso azkarra. Orhoitarazi gituzu Hiriart-Urruty zenaz, ez baitezazuket eman laudorio handiagorik. Jarrai zakizkio ara beretan eskuarari. Euskalzale guziak zuri beha gaude.

Bigarren primaren (100 l.) irabazle Indart Arnauld Lasatar apez-geia jostakinago agertu zaiku, maltzurra ere ba apur bat, desbardintšago bere mintzaian, ez arras bere laguna bezain apaindu eta osoki zuhur, bortz egia sarkorren erraile hargatik, eta, oro barne, eskual idazle on.

Hunek jauzian *Šuriloral* geramatza. Baginakien aspalditik Anhauzeko hegal hartan bizi zirela egundainotik *Agolak*, beharri ttinttila mathel hezurrari lothia dien gizadi omen gaištoko hura. Aditia ginien — zer ez derasate Garazin! — beharri motzak zirela oro Šuritoan, ez dela lurraren gainian Šuritoan baizen beharri motzak nihun, ez eta šuritoar beharri motz agotak bezalako ihizirik. Hainbertze eta halakoak bazeratsaten Šuritoko bizizaliez non asko eta asko — aithor dut hotarik bat nizala nihau — izan baitziren Šuritoan berian, ikusteko egia zenez.

Doniane-Garazitik Baigorrrirateko erregebidia utz eta ezkerretarik orga-bide batek bazeramatza berehala bi etche lerro šuriren arterat ; han zira, Šuritoan. Zelaiño bat ez arras zelaia, lur biškar batzuek berešten dutena Anhauzeren ganik eta mendi gorasko batek Garaziri dau den eskualdetarik. Bitšikeria: beharri motz bakar bat ere ez nien ikusi! Nungo nahiko laborariekin eite osoa aurkitu neien šuritoarrer, ala beren eskuarazko mintzaian, ala beren jauntzian, ala harat-hunatetan, ala egintzetan. Jende šume andana bat baziteken hargatik, šuhurki bizi zirenak, bertze batzu orobat aha bezala, bainan nun ez da halakorik ?

Bertze ikusliar batzu oharitu omen ziren bazirela ba, egiazki, Šuritoan beharri motz bakar batzu ; aithortu behar ukan hargatik hek ere nun nahi aurkitzen dela hainbertze, orotan badirela beharri motzak ; eta Pariseko andere handien beren artian, zer diot ! ministroen beren artian ere ikusten ohi direla noiz edo noiz agot batzu ezin ukatuzkoak.

Hor hasten zaizku jakintsun batzu, — edo jakintsun direlako erhautsaz begiak itsutu nahi dauzkiguten zombait, — ez dela batere Šuritoko arrazaren ganik, hainbertze hedatia den beharri mozgo hori ; baizik eta, lehenago, lepra edo legena deithu gaitz batek bazter gehienak kotsatu zitiela, eta geroztik hunat beharri puntan dela noizetik noizera agertzen aipatu gaitz itsusiaren ondorioa. Erantzun ginezake delako jakintsuner, medikiak ez direla ardura oharitu lepra edo legena aihertzen dela beharri ttinttilari, berantian baizik ; bitši baino bitšiago litakela beraz, ezin sinesterainokoan bitši-gure soineko haragi izpi hartan, garaitikoa utziz garbi, dadila noiztenka ager ez dakigu noizko kotsu hartarik zerbait.

Idiart apez-geiak uste dut sušendu gitien guziak. Egia harek erakusten daukun bezala ditake. Ba, Šuritoan ziren bizi, lehengo mende batzuetan, Agotak zirelako beharri motzak ; eta nahi baduzie sušen jakin nun, Garaziri dagon oraiko mendi mazelako harpe batzuetan. Etziren eskualdunak, agotak baizen ; iduri luke haatik eskuara askitto polliki ikašia zutela. Jendaila lapur, ñapur, bilhaškari, zirtzil, lohia. Aintchitšarbururat ez baitzen oraino buhamirik jinik, ez omen ziren Garazin Agotez baizik mintzo.

Egun batez horra nun, auzoek ziloak hetsirik edo lurikara baten ondotik, horra nun gure Agot guziak beren lurpetan leherturik gelditzen diren. Gaizki diot guziak ; errege zen oso baratu, egun hartan Šuritotik atheraia zelakotz. Langile handia baitzen errege hura, errege hanitzak ohi diren bezala, haren ondokoetarik ditugu bazter guzietan, oraino ikusten diren beharri ttinttil lothudunak oro.

Ez dugu harritzekorik beraz Šuritoan ere ikusten badira nor edo nor, bertze eskualdetan bezala. Bakarrik Šuritoa, Parise edo Garazi — ez niz mintzo Baigorritz, are gutiago Euskalzaleen bilzarraz — « agota » etzako nehorri erraiten gehiago sudurrerat, beharri motza izanikan ere, non ez den sakel huts.

Ez dauziet erranen bertzerik deus Léon eta Idiart bi jaunen konderez. Agertuko bide dira laster bai *Eskualdunian*, bai *Gure Herrian*, zihauerek ahamenka eta jakituz gozatuko baitituzie.

Laffitte Pierre, lthorroztar apez-geiak ereman du hirugarren garai-saria, bere lagun Dospital Ferdinand Uztaritzekoarekin erdizka (100 l. bien artian). Fediak noiztenka Lurden emaiten ditien goi-gogatzetze edo *extase* batez zien bere solasa. Eskuara ezin gehiago garbiz, atsegin handi baikinien orok hizkuntzaz. Luzesko haatik ipuina, hurrisko, noraizunen (*personnages*) mihiak zain gutiskorekin. Eskas bertzalde *l'originalité* (iñarbegirik ez).

Laudorio eta kitzika berak eginen daizkot Dospitali, idatzi daukun alegiarentzat: debriaren emazte baten ganik atheratziaz, haren baitan edari batez ahotik sarthu ondoan.

Mintzai edozointan, kondera idaz-lan nekeenetarik da, ez bada orotako nekeena. Guti, akatšik gabe denik. Luma zalua galdegiten du; gei hanitzen gose delarik, oro ezin gehiago izariz nahi ditu, neurri minian orhatak leunki, irakurtzaliak ez dezan ikus den gutienik langiliaren eskia, ez jokia ere. Erran gauzen alderateko soak dezala bakarrik iduk hura lilluraturik. Ara horri jarraik bedite, ja batzuek dakiten eta bertziak bermatuz ikasten ari diren bezala, Semenarioko ištudiantak.

Haurren eskuarazko primak .

Hoberenenak, tokika.

1a — Berrehun eta berrogoita hamar libera (250 l.) zati-
tuko dituzte beren artian, berdintsu egin dutelakotz beren
lana, izendatzera goazin hiru muttiko hok :

Borotra Joseph, Halsuarrak, Ustaritzen.

Pochelou Arnauld, Iholdykoak.

Tambourin Pierre, Baigorrikoak.

2garrena. — Berrogoi ta hamarna libera (50 l.) :

Eyhéragaray Anna, Arhanzuztarrak, Larzabalen.

Inda Elisabeth, Aldudekoak.

3garrena. — Hogoita-bortzna libera (25 l.) :

Aintziart Anna, Larreshotarrak, Ustaritzen.

Erramontéguy Jean, Semperekoak.

Hoberenen ondokoenak, tokika.

Hogoi-ta bortzna libera (25 l.) zortzi haurrek :

Amestoy Jean, Iholdykoak.

Arranguren Marie-Jeanne, Ortzaiztarrak, Baigorrin.

Barnetche Etienne, Garroztarrak, Donapaleon.

Béhastéguy Dominique, Semperekoak.

Esponda Anna, Aldudekoak.

Maillet Marianne, Larzabalekoak.

Requet Catherine, Zalgizekoak.

Ohorezko aipamenak:

Etchecoin Gracieuse, Arhanzuztarrak, Larzabalen.

Etcheverry François, 8 urthe, Ustaritzekoak.

Gosterratxu Marie, Aldudekoak.

Lamaison Pierre, Donapaleokoak.

Lécuona Etienne, Semperekoak.

Michelena Charles, Baigorrikoak.

Mihura Véronique, Zuraidarrak, Ezpeletan,

Piarrestéguy Pierre, Iholdykoak..

Requet Anna, Zalgizekoak.

Salagoity Jeanne, Armendariztarrak, Iholdyn.

Bil-tokika, hango eskualzale bati Diriarit diruzainak emanen daizko egun berian primen sariak. Primadun bakotcharentzat eskuratuko du halaber gure lagunak, *Laborariaren gidariaren* idazle Etcheverry bihozduaren ganik, orok dakizien liburuttoa.

Aditia duzie jadanik hurrek zertaz eta nori zuten eskuarazko letra baten izkiriatzia: etcheko berriez, Alemaniako mugan soldado zuketan aneia bati. Etzaiku bada iduritu hanitzek bazakitela, asmatzen ere zuketela zendako ziteken han aneia soldado. Soldadoaren egitekoetz eta eginbidiaz ere ez daukute deus handirik adiarazi. Etcheko berriak ere askotan šuhurtto, eta ahal bezalakoak. Etchiarekin batian herria ez den gutienik aipatzen. Hots, arras haur lan, nahiz andana handia tarrotiak ziren.

Bizkitartian eskuara garbia hanitzek, eta atheraldiak šušen. Idazkera edo ortografa hala-hulaše. Ttittazko neurtza (*poncluation*) izake (*inexistant*) edo eskas, edo makurra. Noiz-nundikoa (*date*) eta etchiaren izena.. frantsesez. Primadunetan bakarrik akatš (*défauls*) hoik gutiago, bainan ez halere arras guk nahi bezain.

Atsegin handirekin dugu ikusi bazirela 114 apainorri edo kopia, behinere oraino ez baitzen agertu hoinbertze. Helduden urthian 400-en ustia baginuke.

Sail beraz, šušen eta barnago

Haurren urthekal primatziari jarraikitzen da Euskalza-leen-bilzarra, eta baditeke hori dugun gure burutzapenik hoberena, gogo ginuken obraren zimendia delakotz. Bizkitartian etzait iduri osoki šušen gabiltzala: hamahiru urthez petiko haur guziak nahas-mahas hartzen ditugu, ohartu gabetarik batzu badirela askitto argitiak, asko

certificat d'études dela-koaren ere jabe, eta andanaño bat jesusetik berriki atheraiak. Ziin baimenarekin prima bereziak nahi gintuzke eratchiki, bai hamar urthez petikoentzat, bai larritiagoentzat.

Bainan bada makurragorik. Lanpidiaz ez othoi deus aipa aintzinetik haurrer ; bil-tokietan begiztari denak ez ditzala ere den gutienik lagunt, ez ditzala ere utz elgar laguntzera. Nahi badugu iraun dezan abiatia dugun sailak, izan giten guziak gure eginbidian garratz ; bertzenaz, haurrek berek gaitzesturik, herritarren omenian eroriko gira.

Hartu ditugu bestela helduten urthekotzat izari batzu zorrotzak ; badugu uste zerbait onik ekarriko duten.

Makurrago oraino hauše : bazter egon zaizkigu herri handienetarik zonbait. Baiona lehenik, gure hiri-nausia, han zangorik ez ukaitekotz ez bailuke hanbat balio deusetara berma giten. Bigarrena Maule, Ziberoako hiri gehiena. Mauletarrak, Mauletarrak, zer bilakatu ziren dieia bi urtheko ziin šede bero bek ? .. Doniane-Lohizune gero, atsegabe hartu baitugu aditurik bere eskualduntasun betierekoa ukatuz doala egunetik egunera. Doniane-Garazi eta Hazparne, euskalzale nehork ez dielakotz nahi ukan bere gain hartu galdegina zitzakon lan šumia. Biarritze, hemen ez dugulakotz omen deus ikustekorik gehiago, — itsasoak ez, bainan ba arrotzek itho hurran gituztelako estakurian. Egiaz bihozmin ukan dugula hoinbertze eskergabekeriez.

Lotsarik ez bizkitartian. Ene lagunek ez nik ez dakigu lolsa zer den, ez ziek ere arabez ! Nola iharduk ez-ašolari, nagikeriari, horren jakitia zaiku bakarrik gaitz. Elgarrekin mintzatuko gira sarrišago hortaz, eta argitu ondoan elgar, bat guziak fedez bezala indarrez, joko dugu buru hoberenetik.

Makurrago oraino bertze zerbait. Zonbat dira gutartian zinez eta gogotik beren gain hartzen dutenak haurren biltzia, haurren ondoan egoitia, onetsiak zaizkoten hiru

orenez ? Arras guti. Lurra iraultzen ez dien laborariak nundik duke bada huntarik ondoko egunetan uzta ?

Hoztasunik ez othoi erakuts gure aldetik ! Guhau hotz agertzen bagira, nola bero bertziak, nola bil guganat begiak zabalik guri dauden haurrak berak ? Badakit adin batian halako bat dela, neke dela bizipide batzuetan, šumetzia dela handizki goratasun batzuetarik, haur batzuen zain jartzia ephe luzesko batez; bizkitartian, guhaurek ez badugu etsemplu emaiten hastapen huntan bederen, haur primatien artian edo eskolemailien artian badukeguia gerošago zaintzale zuhurrik ? Gogoetatia nago egjazki.

Badazkit bizkitartian herriak, zointan eskolemaile frantses hatzuek beren buria gogotik eskaini baitute lan hortako. Behar bada uste baino iaguntzale gehiago baginuke orai beretik eskolemailetarik beretarik, .. balakatur. Onhar ditzagun beraz, eta gure ordain ezar diren toki guzietan, guhauri sobera balin bazaiku.

Behar bada holaše haurren bi-tokiak ere emendatuko ditugu uste baino lasterrago. Erakutsiko daukuzie ziin iduripena. Guk hauta ginitzazke berehala Sara, Urruña, Itxassou, Cambo, Beskoize, Bardoze, Lekorne, Donamartihiri, Donaišti, Mendibe, Ortzaize, Heleta, Irissarry, Donazaharre, eta bertze kantonamendietan hoi en iduriko herri on, osoki eskualdun gelditu zonbait.

Barkatu solas hauiek balin baderakarte ene aldetik, arrengura baino gehiago, ilhundura izpi bat.

Eskuararen etorkizuna

Euskalzale lagun maitiak, urthetik urthera hogoi ta hirugarren aldia dugu naski, aurthen, elgarretaratzen girela. Mende laurden bat hurran. Ardietsi dugua zerbeit ephe luze hortan, ekarri dakogua zerbat onik Eskual-Herriari ?

Kalterik ez, hasteko ; baina onik ? Goraki erranen

dut baietz, ziin buriarekin batian neuriaz apur bat urgoitzen baniz ere. Behinik behin elgar ikusiz, elgar adituz, elgarretara bilduz, elgar lagunduz, eskualherriaren *biholz* bezala jarri gira. Eskualdun irauteko šediak, erdi lo baitzauden edo zapatiarekin hats-bizi, agertu ditugu, ezagutarazi ; arbasoen urratsian ihardukitzeko arak, šeheki ikertu ondoan, ezarri ditugu elgarren eta ororen begien aitzinian; helburia garbiki ikusiz, abiatu sailari baztertu gabe garraizko.

Ohikuntzak ez doazi gältzera Eskualherrian. Ašalez kambiātu ditazke, bizi diren zer guziak kambiatzen ohi diren bezala ; barnez ordian gogor daude eta zail. Mendeen mendetako ginarrria ez dauku eremanen arrotzak. Leku-ko, bertzeak bertze, gure pilota jokoaren berdin egoitia, gure etche zahar eta berrien apaindurarena, gure bazterrarrena, gure hilen alderateko orhoitarena, urrungo leihorak gure begiez ikusi eta gure besoez lantu nahiarena, gure bizi molde guziarena hitz batez.

Bada zerbait bizkitartian ahuldu zaikuna, erranen dut zer garbiki : lur lanaren amodioa. Hirirat bagoazi, hiriek hasi daukute iresten gazteriaren hoberena. Badut uste hargatik hirietarako lerra horrek ez duen iraunen luzaz. Hiriak ez dauzkê alainan šutik basherrietako uztarik gabe ; herrietarat, bertzaide, behar dute hedatu, nahi-ta-ez, hirietako erreštusunetarik hanitzek. Orai herritik hirira tarrapatan jaisten bezala, ikus dezakegu ephe laburrez, hiritik mendirat, zelairat bederen, urrikiturik izultzen eskualdun gaztia.

Da guzia harat-hunat hortan zer bilakatuko den gure eskuara maitia. Badakigu orok, guk baino ere hobeki hautemaiten du jende šehiak, hori diela bere ontasunik handiena, hori bertze guzien bilduma eta gakoa. Jakitia eta hautemaitia ez aski, bizkitartian, beiratzeko. Etsai gaitzak alde orotarik, halako oldarrian bihurtzen zaizkigunak non, Azkuek erranaren arabera, lehen mende batez bezenbat gal baitezake orai eskuarak bortz urthez.

Ihardukitzeko ez uste ukan, hargatik, eskuarak behar diela heldu lehen maila daukaten mintzaien neurritat. Ez ; aski da oraiko eskualherriaren bizi moldia erran ahal dezan. Urrun da, aithorrazie, erraitetik; dagon neurrian, laborari sumien, artzain eta arraintzalien arteko baizik ez da on. Kurubilkatia dago sobera bere zahar moldian ; aitzinatu nahi, eta odolik ez ; šuhur eta uzkur.

Euskalzaleek erakutsi dakogu azkartzeko, zalutzeko, hedatzeko bidia. Dezagun atchik behinik behin guhauk bide hortan, ahal guziez mintzatuz eta apainduz gure lumaz, erakatsiz gure haurrer, gure menekoen ganik entzun nahiz. Ez baikira hemen girenak bethiereko, bil ditzagun gu ganat ahal bezenbat gazte argitu, langile on, mintzazaie garbi eta izkiriazale khartsu.

Gure adimendiak ditzagun argi, gure bihotzak idek eta elgarren suaz bero, gure eskuak zabal, batera gure indarrak.

Baigorriko bilzarra doala helduden urthian, azkarrago oraino, erro berrien egitera Hazparnerat !

J. ETCHEPARE

